



Aitza beldurak jota

"Zinema kalean" programazioaren haritik, fantasia eta beldurrezko filmak izango ditugu ikusgai datozen egunotan Altzako Plaza Gorrían. Hilaren 5ean, ostirala, Guillermo del Toro zuzendariaren "El espinazo del diablo" filma pantailaratuko da. Hilaren 6an, berriz, Allen eta Albert Huguesen "Desde el infierno" filma emango da. Emanaldiok 22.30ean hasiko dira.



noaren lan berria

Noa kantariak kontzertua emango du Kursaal entzutokian hilaren 9an, asteartea. Abeslari israeldarrak 1994an kalera-tu zuen lehen diskoa eta orduz geroztik, beste hiru plazaratu ditu. Ingelesez abestu ohi duen arren, hebraieraz ere aritu izan da. Donostian Noaren "Now" lan berriko abestiak izango ditugu entzungai. Kursoaleko emanaldia 21.00etan hasiko da.

Michael Caine Amara Berrin

Asteotan Michael Caine aktore ingelesari buruzko bideo-foruma egiten ari da Amara Berriko kultur etxean. Hilaren 8an, astelehena, Woody Allenek zuzendutako "Hannah y sus hermanas" filma emango da. Caineekin batera, Woody Allen bera eta Mia Farrow dira pelikula honetako aktore nagusiak. Film honi esker Michael Caine-k Oscar saria eskuratu zuen 80ko hamarkada amaieran. Proiekzioaren ostean solasaldia egingo da. Emanaldia 17.45ean hasiko da.



AENaren bilduma. Aireportuetan jarritako artelan handien erakusketa. Kursoaleko Kubo aretoan, irailaren 1a arte.

Ricardo Sanzen olioak ikusgai. Etxeberria galerian (Zubieta 18-20), uztailaren 20ra arte.

Javier Valverde-ren pintura lanak. Galeria 16an (Arizain Oña 16), abuztuaren 4ra arte.

Ramón Zurriarrain donostiarren olioak. Altxerri galerian (Erregente Erregina 2), abuztuaren bukaera arte.

Preben Dlasgard daniarkarraren argazkiak ikusgai. Gipuzkoako Argazkilaritza Elkartearen (San Juan 27), uztailaren 3ra arte.

"Mi vida, una performance". John Otazuren artelanak. Arteko galerian (Secundino Esnaola 3), uztailaren 15era arte.

"Calcuta, begirada irekia" argazki erakusketa. Bulebarreko Kutxa aretoan (Bulebar 1), uztailaren 6tik 28ra bitartean.

Petit de Meurvillek (1857-1873) Gipuzkoako kostaldean buruz egindako pintura lanak. Untzi Museoan (Kaiko pasealekua 24), irailaren 13ra arte.

"Tuareg. Basamortuko ibiltariak" erakusketa ikusgai. San Telmo museoan, uztaila bukaera bitartean.